

EPE 2011: IZENA EMATEKO INFORMAZIOA: 2012KO URTARRILAKO DEIALDIAK

2011ko uztailaren 27ko EHAAn Osakidetzako Zuzendari Nagusiaren 1282/2011 Ebazpena argitaratu da, uztailaren 15ekoa, hautatze-prozesua arautuko dituen oinarri orokorrak jasotzen dituena.

2012ko urtarrilaren 26ko EHAAn, Osakidetzako Zuzendari Nagusiaren ebazpenak argitaratu dira, honako kategoria hauetako deialdiak oinarri espezifikoak jasotzen dituztenak:

Lan-Osasuneko Erizaina
Osasun Mentaleko Erizaina
Fisioterapeuta
Emagina
Gizarte Langilea
Terapeuta Okupazionala
Osasun-Dokumentazioko Teknikaria
Erradiodiagnostikoko Teknikaria
Erradioterapiako Teknikaria
Informatikako Teknikaria
Farmaziako Laguntzailea
Gidari Ofiziala
Mantenimendu Ofiziala
F.E. Toraxeko Kirurgiako Medikua

Kategoria hauetako hautatze-prozesuan **izena emateko epea: 2012ko urtarrilaren 27ko 8:30etatik otsailaren 15eko 14:00etara.**

Izena emateko **eskabidea** <http://www.osakidetza.euskadi.net> web-orrian egingo da eta bertara honela heldu daiteke: Profesionalak/Giza baliabideak/ Hautatze eta Hornidura/ EPE 2011/Eskabidea.

Hautatze-prozesuan izena emateko ondokoa egin behar da: eskabide elektronikoa bete eta izena ematearen eskubidearen ordainketa egin. Bata zein bestea izena emateko epearen barruan egin behar dira. Izena emateko epean ez da inolako dokumentaziorik aurkeztu behar.

Hautatze-prozesuan izen-emate elektronikoa egiteko erabili behar duzun **pasahitza** ondokoa da:

- 2011ko Kontratazio-zerrendetan izena eman bazenuen: prozesu hartan erabilitako pasahitza.
- 2011ko Kontratazio-zerrendetan izena eman ez bazenuen, baina, 2008ko EPEn izena eman bazenuen: 2008ko EPEn erabilitakoa.
- 2008ko izena eman ez bazenuen, baina 2008ko Kontratazio-zerrendetan onartuta bazeuden: 2008ko Kontratazio-zerrendetan izena emateko erabilitakoa.
- Aipatutako pasahitzen bidez ezin baduzu zerrendetan izena eman, baina, Osakidetzan lan egin baduzu eta Osakidetzan curriculum vitae baduzu: zure curriculumean erabilitako pasahitza.

- Aipatutako ataletan ez bazaude, pasahitza izango da, eskabidea egiteko aplikaziora lehenengo aldiz sartzeko erabiltzen duzuna. Pasahitza gogoratu beharko duzu hautatze-prozesuari buruz egin beharko dituzun hurrengo kontsultetarako.

Pasahitza gogoratzen ez baduzu, eska dezakezu eskabide-inprimakiaren bidez, aplikazioak sarbide kontrolean pasahitza eskatzen dizunean. Horrela izanez gero, aipatutako pasahitza erabili zenuen prozesurako emandako posta elektronikora bidaliko dizugu automatikoki pasahitza. Horrela ere, ezingo bazenu pasahitza lortu, edo bidalitakoak eskabidea egiten utziko ez balizu, deitu ondoko telefonora: 945006150, bertan esango dizute zer egin behar duzun pasahitza eskatzeko eta jasotzeko.

Zuzeneko arreta 2012ko urtarrilaren argitaratzen den deialdirako:

Araba: Osakidetzako Erakunde Zentrala – Hautatze eta Hornidura Zerbitzua
Araba kalea, 45 Vitoria-Gasteiz

Bizkaia: Bilboko Eskualdea (Gran Vía, 62 – 2. Bilbo)

Gipuzkoa: Donostia Ospitalea – PAU (Profesionalaren Arretarako Unitatea)
Begiristain Pasalekua, z/g. Donostia-San Sebastián

Bulego-orduak: Astelehenetik ostiralera 9:00etatik 14:00etara

Vitoria-Gasteizen, 2012ko urtarrilaren 26an.